

BETAURREKORIK GABE

Askoren artean

AUTODETERMINAZIOA LANTZEN
DUENARENTZATJoxe Felix
AZURMENDI

MIGUEL DURAN-I -telebista espainiarreko lehen kate pribatua zuzentzen duen itsu horri- autodeterminazioaren inguruan entzun duan gauza zuhurrena entzun nion tertulia batean: *"eskubide hau, azkenean, lantzen duenarentzat da"*. Eskubide honen eta edozeinen alde eta kontra argudio asko dago, baina hau aldarrikatu eta honen alde borrokatzen dutenek soilik bereganatuko dute.

Gai hau zentzu batean edo bestean mahai gainean jartzeko arrazoin asko dago, baina piska bat arakatuz gero hainbesterako arrazoinik ez dagoela konturatzen gara. Azalpenak egiteko modu asko dago, baina arrazonamendu berezituak ez hainbeste. Azken finean, ezbaian dagoena, Almunia-k dioena da: *"subirotasuna bakarra da eta nazio espainiarra bakarra da"*. Baina gauza bera da Euskal Herria eskubide honez gozatu dezakeen nazioa den ala ez galdetzea, euskaldunek heuren patuaz erabakia hartu behar duten edota *"nazio espainiar osoak"* euskaldunon etorkizuna erabaki behar duen.

ALMUNIA-K dio autodeterminazio eskubideak ez duela konstituzio espainiar honetan lekurik, itxura guztia duena, nahiz irakurketa *"esku zabal"* bat egin ahal izan. Baina egia da ere, legearen barnean dagoen edonolako testuak "edozertarako" balio izatea, *borondate politikoa* deritzan horrek esis-

tuko balu, eta oraindik zentzurik duena, nahiz gehigizko erabilera jasan. Almunia-k eta bere kideek diotena, beste guztiarekin batera, borondaterik ez dutela da.

Norbait tentaturik aurki daiteke, sozialisten borondatea eta errealtate konstituzionalaren ondoren, eskubide hau eztabaidatzea ez duela penarik merezi, edo egitekotan, irtenbiderik gabeko lengoaiari burutzeraz iritsiko denik. Agian arrazoirik izango ez duen frogaz, espainiar indar bizi, lotan edo ezkutaturik, guztien pitzadura eta kontraesanik gabeko erantzun berberak eskaintzen dio. Gasteizko Legebiltzarrean demokratikoki eta era kontziliatu batez eztabaidatzeko moduko errebindikazio honen, alarma gorrian ezarri du Espainia eternoa, onartutako akordioa testimonio hutsa izatetik ez litzakeela pasatuko jakin arren.

ARGIBIDEA Duranen hitzetan aurkitzen da -eta Duranenak ez badira ere, baliagarri gertatzen dira-, ezen iniziatiba hori, beste argibide batzu bota arren, euskaldunen *"lanaren"* tornillo buelta baten gisa onartzen baita. Egia bada legezko ez den proposizio honek berehalako itzulpen praktikorik izateko modurik ez duela, egia da halaber, ez litzatekeela nazioarteko eritzi publikoaren aurrean euskaldunen zati batek gutxienik duen borondatea zein den zalantzan ezarriko. Erabakia, kasu batean, testimoniala izango litzateke, baina bestean, testimonioa.

ARZALLUZEN HITZAK

XABIER Arzalluzek pasa den astean espainiar telebistan Mercedes Mila-rekin izandako *rifi-rafea* kazetari inpertinente eta buruzagi politiko trebe baten arteko eztabaida baino beste dimentsio sakonagoa aurkitu dion analistarik ere bada.

Espainiar demokraziaren birtuteen defendatzaile amorratuaren aurrean Arzalluzek euskaldun guztiok genekiena argi eta garbi adierazi zuen, hots hemen eta orain askatasun osoa bakarrik ETArekin aurka mintzatzeko besterik ez dela, beste zenbait arazo, instituzio edo ta kloakaz edozein kritika, galdera zein ikerketa, faktikoki debekaturik dagoela. Honen berri badute bada ezker abertzaleko hainbeste buruzagi zein militante soilak, alajaina!

EBBko lehendakariak gai *tabuak* aipatu zituen une eta toki oso zehatzetan, ikus-entzulego bereziaren aurrean. Esandakoak, hitz gogorrak benetan, espainiar guztien aurpegian, eta Euskal Herriko txokoren batetan ohi izan duen bezala, esanahi berezia duela deritzot, Mc Luhanek zioen bezala, medioa bera mezua baita.

ESPAINIAR agintariek Aljer-eko mahaia leherarazi zutenetik, euskal arazoa heuren erara konpontzeko hamai-ka inizatiba berri asmatu dute erreformaren alde jo ta ke aritu direnek, Ajuria Eneako paktua barne. Herri Batasunaren isolamendu politikoaz gain, polizial errepresioa eta presoaren aurkako era-

soak erabat gogortzen saiatu dira, lehen aipaturiko helburua inolaz ere burutu ez dutelarik.

Burukide jeltzalearen hitzak testuinguru zehatz batean kokatu behar dira, ETA eta Gobernuaren arteko negoziaketetaz indartsuki hitzegiten hasi denean sortutakoa, alegia.

ZENBAIT komunikabidetan irakurri ahal izan dugunez Frantzia zein beste estatuetako Gobernuak erabat interesaturik daude izan beharko diren elkar hizketa eta negoziaketa politikoan anfitrioi izaten, horretarako Mitterrand-ek ustez ETArekin zenbait burukide Metz hiraren inguruan biltzen ari ditu. Beste filtrazio batzuk Jugoslavia edo Venezuelara seinalatzatzen dute negoziatorako eskenatoki gisa.

Edozela ere, eta aipatu informazio periodistikoak behar den kontuarekin hartuz, izan eta izanen diren mugimendu politiko guztiak euskal politikagintzarekiko guztiz mugatzaile den ETA eta espainiar Gobernuaren arteko aurkaketa armatua eta honi amaiera jartzeko izanen diren negoziaketei estuki loturik aztertu beharko genituzke.

Hori horrela izanik Xabier Arzalluzen hitzak, eta hemendik aurrera beste buruzagi politikoengandik entzungo ditugunak, negoziaketa mahaira hurbiltze prozesu batetan ulertu beharko ditugu, azken finean alderdi euskaldun ororentzat mahai horren ingurutik hurbil egotea desio bat baino behar bat baita. Eta horrela behar luke gainera.



Martin
SARITANO

ZAHARRAK BERRI



Nerea
AZURMENDI

AIPAGARRIA da berriek, hazi, borobildu eta aldatzeko duten ahalmena... gero, lege dramatiko i jaramonik egin gabe, berri transformista hauek amaiera eta irtenbide argirik gabeko obra korapilotsu bilakatzen badira ere. Zeren, azken egunotan ere, zaharrak berri...

Zaharra da Autonomi Elkartearen Lurralde-antolaketa inguruko gatazka, eta edadetua dagoenerako auziari eman zitzaion irtenbidea. Astearen lehenengoetan, beraz, harrigarriak gertatu ziren Ardanzen adierazpenak, bere alderdiak berak ezarri zuen Lurralde Historikoen ordezkartza sistemaren aldagarritasuna eta honen aldaketaren komenigarritasuna lasai asko plazaratu bait zuen, ordu gutxiaren buruan Arzalluzen itzala ere zentzu bereztuan zabaldu zelarik. Arrazoi ukiezinak zirela eta, onartua genuen ustez euskaldunok elkarri konpetentzia ez egitearen araua, txisteak salbu. Orain berriz, bere burua sendotu eta finkatutzat ematen duen Alderdiak bere metropoliaren pisua sentierazi nahi du Legebiltzarrean, orain arte anaia-arreba txikiak, Gipuzkoa eta Arabak, zegozkiena baino ordezkartza zabalagoa izan balute bezala. Agortzeko zeuden kanpainagai iturriek ere probetxatu dituzte azken egunotako euri berriak, giroa berotu ahal ekaitz izan daitezkeen arren. Eta tximistak bat edo bat zauritzen badu, istripuaren partea egitera koan tximisten kutxa ireki zuenari galdetu beharko diote zertan jarri zuen zantalzan gehiengoak, denboraren podede

rioz, onartua zeukan eskema.

ZAHARKITUA, era berean, euskarazko egunkariaren historia oraingoz antzua. Asteazkenez, Eusko Jaurlaritzak, egunkari bakar baten aldeko apostua egin ondoren, ustez bakarra izango den egunkari baten projektua prestatuko duen taldea aurkeztu zuen. Egunkari "zabala" asmatu nahi da, eta lan taldea osatzerakoan, "pertsanak eta ez medioa" hartu dira kontutan. Larunbatez, "Egunkaria sortzen" taldeak "Euskarazko Egunkarirako Aurreproiektuari" azkeneko begirada eman zion Donostian. "Zabala" hau ere, proiektuaren laugarren ezaugarriaren arauera eta, hau ere, "pertsanak eta ez erakunde edo elkarteak" bildu ondoren prestatutakoa. Atrebentzia bada ere, denboran bigarrena eta oraingoz azkena den ekimenaren zergaitia zertan oinarritzen den jakin nahi luke askok, susmotan irakitea librea bada ere.

ETA geure artean ikuspen bikoitza zabalitzen ari den gaisotasuna bada, beste zenbait begik zeharka begiratzen dute, komeni zaien zokora, noski. Indarkeriak ala borroka armatuak norberari merezi dion balorazio politiko nahiz etikoa une batez alboratuz, xehetasun deigarria aurki daiteke azkeneko dententzioetan, iturri ofizialek aparteko garrantzia eman diote ETArein komando mugikor hori "frantsesez" osatua egoteari. Bertako komunikabideren batzuk ere hala diote, Haramboure, Esnal edo Gartziak aritzerakoan. Ihi hauekin, hara zernolako otarrak egin daitezkeen.

**ADRIAN CELAYA ZAIN DUZUE,
PETRIKORENA ETA ELOSUA**Pello
ZUBIRIA

ABOKATU berri bat aukeratzera behartu dute Juanjoxe Petrikorena, Bueren epaileak hainbat euskaldunek "Porte" izenez ezagutzen duten Joxemari Elosua espetxean sartu duenez gero. Emiliano Revilla libre atera zedin honen familiaren eta ETA-ren arteko bitarteko lanak egin omen zituelako. Petrik aholkurik eskatu ez didan arren, bat emanen nioke hemen-dik, jakinik esango diodana interesatzen bazaio egun bakar bateko lana utziz abokatu berriarekin egon daitekeela: Hendaian hamarretan sartu eta goizeko zazpitan Parisen zaude, eta biharamonean alderantziz. Jacques Vergès abokatutzat edukitzeak hainbeste balio ditu. Begira txit motz esplikatuta: hiru frantses daude bahituta Libanon, Khadafi libiarrak horien aske uztea eskatzen du publikoki, Abu Nidal terroristak famatuak libratu egin ditu, Dumas ministrari frantsesak jakinerazten du Khadafik erosita zeuzkan hiru "Mirage" desblokatu dituela, frantses telebistako gaueko berri-emankizunean artekari trebea Vergès izan dela informatu da. Arrakasta orokor horren sekretua nori galdetuko genioke, Dumasi, Vergès, Elosuari, Buereni...?

RUIZ Balerdi abokatu donostiarrari galdetu beharko genioke, behar bada. Lanerako ahalmen handiko gizona -abokatu lanez gain EEko zinegotzia zen Donostiako udalean- Suñer jaun valentziarrak bere izozkiekin lortutako

mozkinetako bi milioi pezeta bero autoan -ipurdi azpian uste dut- zekartzala detenitu zuen polizia espainiarrak eta Donibanetik Donostiarako bidai arriskutsu hartatik onik atera zen. Petriri oraindik FLNko abokatuarenganainoko bidaia luzeegi suertatuko zaionez, Ruiz Balerdi bururatu zait beretzako, abokatuaren lana egoera zailak konpontzea zenez. Behar bada Petriri gizon politizatuegia irudituko zaio Ruiz Balerdi, eta bazpate bere lagunak Martin Berrocal zezenketa-enpresariaren abokatuaren atzetik dabilta. Horiek behintzat lortu zuten beren klientea Quito bahitza, eta haren xoxak ETarentzako ez baina ELNrentzako izatea.

PORTE gure abokatua da, gurea eta abokatua. Elosua ez da García Enterria. Elosuak beste bezero askoren artean euskal preso politikoak ere defenditzen ditu, eta García Enterriak Espainiako Konstituzioaren garapenean parte handia izan du. García Enterria Madrildik dirua legez kontra atzerriratzeko sare batean implikaturik zegoen, eta Elosuari egozten zaiona egozten zaio. Audiencia Nacionaleko Bueren epaileak erabaki du bien arteko diferentzia. Ez esan eskandalo bat ez denik! Eta Consejo General del Poder Judicialen parteide den Adrian Celaya bilbotarrak, bitartean, autodeterminazioaren mugak esplikatzeko dizkie Madrildiko euskaldunei beren Euskal Etxean. "*Formar una frontera sería de locos*" esan du. Dugun frontera hausten saiatzea zer den definitzea ahortzen du. Gakoa, hain zuzen.